

**GARRAIO
ETA HERRILAN SAILA**

ERABAKIA, 1995eko azaroaren 9koa, Uren zuzendariarena, «Bizkaiko Uren Zerbitzuaren Bilbaoko laborategirako altzari eta ekipoak hornitu eta jartzeko» lehiaketarako deia egiten duena. 14265

BIZKAIKO FORU ALDUNDIA

LEHIAKETA PUBLIKOA, Bizkaiko Foru Aldundiko lokalak eta erakinak 1996. urtean zehar garbitzea kontratatzeari buruzkoa. 14267

Pribatuen iragarpenak**DONAGARAY ETXEBIZITZA-KOOPERATIBA
BALTZUA**

IRAGARPENA, Donagaray Etxebizitza-Kooperatiba Baltzua desgiteari buruzkoa. 14269

Xedapen Orokorrak**MERKATARITZA, KONTSUMO
ETA TURISMO SAILA****4927**

475/1995 DEKRETUA, azaroaren 7koa, etxez etxeko salmenta egiteko beharrezko den berme-fidantzarako baimena lortu eta fidantza hori eratzeko baldintzei dagokienez, maiatzaren 27ko 7/1994 Legea garatzen duena.

Merkataritza Iharduerari buruzko maiatzaren 27ko 7/1994 Legeak etxez etxeko salmenta eta bertan aritze-ko eskakizunak arautzen ditu. Beraz, etxez etxeko salmenta egiten duten enpresek, besteak beste, Merkataritza, Kontsumo eta Turismo Sailaren baimena lortu beharko dute aurretik bai eta berme-fidantza bat eratu-ko ere.

Ondorioz, Merkataritza Ihardueari buruzko maiatzaren 27ko 7/1994 Legearen azken xedapena ikusi ondoren, Merkataritza, Kontsumo eta Turismo sailburuaren proposamenez eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 1995eko azaroaren 7an egindako bileran aztertu eta onartu ondoren, hauxe

**DEPARTAMENTO DE TRANSPORTES
Y OBRAS PÚBLICAS**

RESOLUCIÓN de 9 de noviembre de 1995, del Director de Aguas, por la que se acuerda convocar concurso para el «Suministro e instalación de mobiliario y equipos para el laboratorio del Servicio Territorial de Aguas de Bizkaia en Bilbao». 14265

DIPUTACIÓN FORAL DE BIZKAIA

CONCURSO PÚBLICO para contratar el Servicio de Limpieza de locales y edificios de la Diputación Foral de Bizkaia durante 1996. 14267

Anuncios Particulares**SOCIEDAD DE COOPERATIVA
DE VIVIENDAS DONAGARAY**

ANUNCIO de disolución de la Sociedad de Cooperativa de Viviendas Donagaray. 14269

Disposiciones Generales**DEPARTAMENTO DE COMERCIO,
CONSUMO Y TURISMO****4927**

DECRETO 475/1995, de 7 de noviembre, por el que se desarrolla la Ley 7/1994, de 27 de mayo, en lo que se refiere a las condiciones de obtención de la autorización y constitución de la fianza caucional necesarias para la práctica de la venta a domicilio.

La Ley 7/1994, de 27 de mayo, de la Actividad Comercial regula la venta a domicilio y los requisitos para su práctica, entre los que se encuentra la previa autorización por el Departamento de Comercio, Consumo y Turismo y la obligación genérica de depositar una fianza caucional por parte de las empresas que practiquen la modalidad de venta a domicilio.

Vista la Disposición Final de la Ley 7/1994, de 27 de mayo, de la Actividad Comercial, a propuesta de la Consejera de Comercio, Consumo y Turismo y previa deliberación del Consejo de Gobierno en su reunión de 7 de noviembre de 1995.

XEDATU DUT:

1. *atala.*– Euskal Autonomi Elkartearen lurralde eremuan etxez etxeko salmetari dagokionez egiten den merkataritza ihardueran erabiltzeko da dekretu hau.

2. *atala.*– 1.– Euskal Autonomi Elkarteko lurralde eremuan salmenta sistema horretan aritu ahal izateko, Merkataritza, Kontsumo eta Turismo Sailaren baimena lortu beharko da aurretik.

2.– Sailak Bilbao, Donostia-San Sebastián eta Vitoria-Gasteizen dituen lurralde ordezkariak aurkeztuko dira baimen-eskeak; nolahi ere, aurkeztu aurretik
3. atalean aipatzen den berme-fidantza utzi beharko da.

Ondoren adierazten diren datu eta agiriak jasoko dira eske-idazkietan:

a) Identifikazioa, enpresaren egoitza eta dagokion merkataritza ihardueran aritzeko erabiltzen duen izena.

b) Ekonomi Ihardueraren gaineko Zergari edo horren ordezkari dagozkien idazpurueta erroldatuta dagoela adierazten duen agiriaren fotokopia eta ordainduta duela egiaztatzen duen agiria.

c) Sozietateen gaineko Zergaren edo, hala badagokio, Errentaren gaineko Zergaren azken aitortpenaren kopia.

d) Gizarte Segurantzaren dagokion erregimenean enpresa inskribatuta dagoela egiaztatzen duen agiriaren fotokopia.

e) Eskegileari dekretu honen indarrez dagokion zenbatekoan eta moduan berme-fidantza utzi duela egiaztatzen duten agiriak.

f) Komertzializatutako produktuei buruzko berariazko arautegiek garbiketa eta sanitate arloan edo beslelakoetan finkatzen dituzten eskakizunak betetzen dituztela egiaztatzen duten agiriak.

g) Enpresaren eskaintza osatzen duten ekoizki edo zerbitzuen zerrenda.

h) Enpresak Euskal Autonomi Elkartearen duen egoitza, eukiz gero, eta salmenta moeta honetan aritzen diren langileen zerrenda, enpresarekin duten atxikimendua eta Gizarte Segurantzaren dagokion erregimenean altan egotearen fotokopia.

3.– Eske-idazkiak jaso ondoren, eskatutako baimeari buruzko erabakia hartuko du hilabeteko epean Merkataritza zuzendariak. Enpresak eskaini ahal dituen produktu eta/edo zerbitzu moetak adierazi beharko dira erabakian.

Aipatutako epean ebatzen ez diren eske-idazkiak onartutakotzat joko dira.

3. *atala.*– 1.– Etxez etxeko salmenta egiten duten enpresek berme-fidantza bat utzi beharko dute. Merkataritza moeta honen ondorioz agian sor daitezkeen administrazio erantzunkizunak nahiz erantzukizun zibilak bermatzea du xede fidantza horrek; Merkataritza, Kontsumo eta Turismo Sailak edo Jaurlearitzaren Kontseiluak ezarritako zigoren ordainketa bermatzeko ere erabiliko da fidantza, baldin eta kobratzeko legez oharmandako bide guztiak amaitu badira.

DISPONGO:

Artículo 1.– El presente Decreto es de aplicación a la actividad comercial que en la modalidad de venta a domicilio se realice en el ámbito territorial de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

Artículo 2.– 1.– Para la práctica de este sistema de venta, en el ámbito territorial de la Comunidad Autónoma del País Vasco, será necesaria la previa autorización del Departamento de Comercio, Consumo y Turismo.

2.– Las solicitudes de autorización se presentarán en las Delegaciones Territoriales del Departamento en Bilbao, Donostia-San Sebastián y Vitoria-Gasteiz y deberán ir precedidas del depósito de la fianza caucional a la que se refiere el artículo 3.

Las solicitudes incluirán los siguientes datos y documentos:

a) Identificación, domicilio de la empresa y nombre comercial con el cual realiza la actividad.

b) Fotocopia del alta en los epígrafes correspondientes del Impuesto de Actividad Económica o el que lo sustituya y justificación de estar al corriente de su pago.

c) Copia de la última declaración del Impuesto de Sociedades o en su caso, del Impuesto de la Renta.

d) Fotocopia de la inscripción de la empresa en el régimen de la Seguridad Social correspondiente.

e) Documentación acreditativa de la constitución de la fianza caucional en la cuantía y forma que en virtud de la presente disposición corresponda al solicitante.

f) Documentación acreditativa del cumplimiento de los requisitos higiénicos-sanitarios o de otra índole que establezcan las reglamentaciones específicas relativas a los productos comercializados.

g) Lista de los productos o servicios que componen la oferta de la empresa.

h) Domicilio de la empresa en la Comunidad Autónoma del País Vasco, si lo hubiere, y relación del personal que esté interviniendo en este tipo de venta, su vinculación con la empresa y fotocopia de su alta en el régimen de la Seguridad Social correspondiente.

3.– Recibidas las solicitudes, el Director de Comercio resolverá en el plazo de un mes sobre la autorización solicitada. La resolución deberá contener los tipos de productos y/o servicios que pueden ser ofertados por la empresa.

Aquellas solicitudes sobre las que no recaiga resolución en el plazo mencionado se entenderán estimadas.

Artículo 3.– 1.– Las empresas que practiquen la venta a domicilio deberán depositar una fianza caucional. La citada fianza tiene por objeto garantizar las posibles responsabilidades tanto civiles como administrativas, derivadas de la práctica de este tipo de comercio, incluyendo el pago de las sanciones impuestas por el Departamento de Comercio, Consumo y Turismo o el Consejo de Gobierno una vez agotados los medios legalmente previstos para su cobro.

2.- Ogasun eta Herri Administrazio Sailak eman dituen arauetara atxikiz eratuko dira fidantzak, horretarako berariaz emandakoei atxikiz hain zuzen ere, esku-dirutan edo banku abalaren bidez. Merkataritza, Kontsumo eta Turismo Sailaren izenean. Nolanahi ere, etxez etxeko salmentan aritzeko baimen eskea aurkeztu baino lehen eratuko beharko da fidantza.

4. atala.- Enpresak urtean duen salmenta-kopurua oinarri hartuz zehaztuko da fidantzaren zenbatekoa, honako eskalari jarraituz:

- 25.000.000 PTAraino, 100.000 PTA.
- 25.000.001etik 100.000.000 PTAraino, 250.000 PTA.
- 100.000.001etik 250.000.000 PTAraino, 630.000 PTA.
- 250.000.001etik 500.000.000 PTAraino, 1.300.000 PTA.
- 500.000.000 PTAtik gora, 2.400.000 PTA.

Diru-zenbateko horiek Merkataritza, Kontsumo eta Turismo sailburuaren Aginduz berraztertu ahal izango dira, kontsumoaren gaineko prezioen indizeak jarraitutako eboluzioaren arabera.

5. atala.- Enpresa sortu berriak edo Euskal Autonomi Elkartearen salmenta moeta honetan lehenengo aldiz arituko diren enpresak direnean, aurreko atalean zehaztutako eskalaren lehenengo zatia dagokiona izango da fidantzaren diru-zenbatekoa.

6. atala.- Nahitaezko fidantza eratu edo aldatzeko, aurreko bi ekitaldietan Euskal Autonomi Elkartearen egindako salmenten kopurua egiaztatzen duten agiriak aurkeztu beharko ditu eskegileak Merkataritza, Kontsumo eta Turismo Sailean, beti ere aurreko atalean adierazitakoa kontutan hartuta.

7. atala.- Etxez etxeko salmenta egiten duten enpresek ondoren adierazten direnak gertatuz gero fidantza aldatu egin beharko dute:

a) Baldin eta Euskal Autonomi Elkartearen egindako salmenten kopurua, urte batean eta hurrengoan, 4. atalean oharmandakoa tartetatik gorakoa bada. Horrela gertatuz gero, aldea sartu beharko du hurrengo tarteari dagokion fidantzaren kopurua lortu arte.

b) Baldin eta egindako salmenten kopurua, urte batean eta hurrengoan, indarrean duen fidantzari dagokion maila baino txikiagoa izan bada. Horrela gertatuz gero, fidantza txikiagotu ahal izango da.

8. atala.- Fidantzaz baliatu beharra gertatuz gero, enpresak jarri beharko du berriz ere erabili den dirua hasierako kopurua osatu arte. Horretarako epea hama-bost egunekoa izango da eta Merkataritza, Kontsumo eta Turismo Sailak horren berri ematen dion egunaren biharamunetik hasiko.

Epea iragan eta fidantza osatu ez bada, espediente bat egingo zaio, eta ondoren, baimena kenduko zaio eta, hala badagokio, fidantza likidatu egingo da.

9. atala.- Enpresak etxez etxe saltzeari uzten diotenean eta Merkataritza, Kontsumo eta Turismo Sailari

2.- La fianza se constituirá de acuerdo con las normas que al efecto tenga establecidas el Departamento de Hacienda y Administración Pública, en metálico o mediante aval bancario, a favor del Departamento de Comercio, Consumo y Turismo y su depósito deberá producirse con anterioridad a la presentación de la solicitud de autorización para la práctica de la modalidad de venta a domicilio.

Artículo 4.- El importe de la fianza se determinará de acuerdo con la cifra anual de ventas de la empresa, ajustándose a la siguiente escala:

- Hasta 25.000.000 de PTA, 100.000 PTA.
- De 25.000.001 a 100.000.000 de PTA, 250.000 PTA.
- De 100.000.0001 a 250.000.000 de PTA, 630.000 PTA.
- De 250.000.001 a 500.000.000 de PTA, 1.300.000 PTA.
- Más de 500.000.000 de PTA, 2.400.000 PTA.

Estos importes podrán ser revisados mediante Orden de la Consejera de Comercio, Consumo y Turismo, en función de la evolución del índice de precios de consumo.

Artículo 5.- Cuando se trate de empresas de nueva creación o que acceden por primera vez al ejercicio de este tipo de venta en la Comunidad Autónoma del País Vasco, la cuantía de la fianza se fijará por el importe correspondiente al primer tramo de la escala del artículo anterior.

Artículo 6.- Para la constitución o modificación de la fianza preceptiva, el solicitante presentará en el Departamento de Comercio, Consumo y Turismo la documentación acreditativa de su cifra de ventas en la Comunidad Autónoma del País Vasco durante los dos ejercicios anteriores, sin perjuicio de lo dispuesto en el artículo anterior.

Artículo 7.- Las empresas que practiquen la venta a domicilio habrán de proceder a la modificación de la fianza:

a) Si la cifra de ventas en la Comunidad Autónoma del País Vasco se incrementa, por segundo año consecutivo, por encima de cualquiera de los tramos previstos en el artículo 4.º, en cuyo caso deberán ingresar la diferencia hasta alcanzar el nivel de la fianza del escalón correspondiente.

b) Si la cifra de ventas ha descendido por segundo año consecutivo a un nivel inferior al que motiva la fianza vigente, en cuyo caso podrán proceder a la disminución de la fianza.

Artículo 8.- En caso de ejecutarse la fianza, la empresa vendrá obligada a reponerla hasta cubrir nuevamente la totalidad inicial de la misma, en el plazo de quince días desde que así le sea notificado por el Departamento de Comercio, Consumo y Turismo.

Transcurrido el plazo sin haberla hecho efectiva se procederá, previo expediente, a la retirada de la autorización y liquidación de la fianza en su caso.

Artículo 9.- Se procederá a la cancelación de la fianza cuando la empresa cese en su actividad de venta a

idatziz hala jakinarazten dioenean itzuli egingo da fidantza. Idazki horrekin batera Ekonomi Ihardueraren gaineko Zerga edo horren ordezkia ordaindu beharretik iare dagoela agertzen duen agiriaren kopia aurkeztuko da.

Jakinarazpena egiten denetik hasi eta sei hilabetetik gora gabeko epean itzuli egingo da fidantza.

Tramitatze bidean dauden espedienteak egonez gero, baldin eta horietatik erantzukizunak sor badaitezke, ez da kontutan hartuko atal honetan finkatutako epea, harik eta espedienteak erabaki eta behin-betikoak izan arte.

10. atala. - Dekretu honetan emandako manuetatik edozein ez betetzea, merkataritza-ihardueraren antolaketako arau-haustetzat hartuko da, Merkataritza Iharduerari buruzko maiatzaren 27ko 7/1994 Legearen 38. atalean ezarritakoaren arabera.

Atal honetan aipatzen diren arau-hausteak arinak, larriak edo oso larriak izango dira, maiatzaren 27ko 7/1994 Legearen 39, 40, 41 eta 42. ataletan finkatutako irizpideen arabera, eta arau-hausteagatik zigorrak Lege horren 43, 44 eta 45. arauetan ezarritakoari atxikiz ezarriko dira.

ALDIBATERAKO XEDAPENA

Euskal Autonomi Elkartearen eremuan salmenta moeta horretan aritzen diren enpresak dekretu honetan ezarritakoari egokitu beharko zaizkio. Egokitzeko epea sei hilabetekoa izango da eta dekretu hau argitaratzen den egunetik hasiko.

INDARGABETZEZKO XEDAPENA

Etxez-etxeke Saltzaileen Erregistroa arautzen duen uztailaren 11ko 178/1983 Dekretua indarririk gabe geratzen da. Merkataritza-Iharduna antolatzezko maiatzaren 19ko 9/1983 Legearen bidez sortu zen erregistro hori.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa. - Baimena ematen zaio Merkataritza, Kontsumo eta Turismo sailburuari dekretu hau garatu eta egiteratzeko beharrezko diren xedapenak emateko, beti ere bere eskuduntzen eremuan.

Bigarrena. - Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunean hartuko du indarra dekretu honek.

Vitoria-Gasteizen, 1995eko azaroak 7.

Lehendakaria,
JOSÉ ANTONIO ARDANZA GARRO.

Merkataritza, Kontsumo eta Turismo sailburua,
ROSA DíEZ GONZÁLEZ.

domicilio y lo notifique por escrito al Departamento de Comercio, Consumo y Turismo, debiendo acompañar al escrito copia de la baja en el Impuesto de Actividad Económica o el que lo sustituya.

La devolución de la fianza se efectuará en un plazo no superior a seis meses desde la fecha en que dicha notificación se produzca.

En el supuesto de que existan expedientes en tramitación de los cuales puedan derivarse responsabilidades, no se computará el plazo previsto en el presente artículo hasta que se resuelvan y sean firmes los citados expedientes.

Artículo 10. - El incumplimiento de cualquiera de los preceptos contenidos en la presente disposición se considerará infracción en materia de ordenación de la actividad comercial, de acuerdo con lo establecido en el artículo 38 de la Ley 7/1994, de 27 de mayo, de la Actividad Comercial.

Las infracciones a que se refiere el presente artículo se calificarán como leves, graves y muy graves atendiendo a los criterios establecidos en los artículos 39, 40, 41, y 42 de la Ley 7/1994, de 27 de mayo y serán sancionadas de acuerdo con lo dispuesto en los artículos 43, 44 y 45 de la mencionada Ley.

DISPOSICIÓN TRANSITORIA

Las empresas que actualmente ejerzan esta modalidad de venta en el ámbito de la Comunidad Autónoma del País Vasco, deberán adaptarse a lo dispuesto en el presente Decreto, en el plazo máximo de seis meses a partir de la publicación del mismo.

DISPOSICIÓN DEROGATORIA

Queda derogado el Decreto 178/1983, de 11 de julio, regulador del Registro de Vendedores Domiciliarios creado por la Ley 9/1983, de 19 de mayo de Ordenación de la Actividad Comercial.

DISPOSICIONES FINALES

Primera. - Se faculta a la Consejera de Comercio, Consumo y Turismo para que, en el ámbito de sus competencias, pueda dictar las disposiciones necesarias para el desarrollo y aplicación del presente Decreto.

Segunda. - El presente Decreto entrará en vigor el día siguiente de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 7 de noviembre de 1995.

El Lehendakari,
JOSÉ ANTONIO ARDANZA GARRO.

La Consejera de Comercio, Consumo y Turismo,
ROSA DíEZ GONZÁLEZ.